

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2023ko azaroak 24 · 1291 zenbakia



# MOREAK

KALEAK JANTZIKO DITU

## eslaban

eslaban.com  
T. 943 820 407

Igogailuak **Fatxadak** Teilatu berritzeak eta aldaketak  
Erreformatik **Proiektuak** **Konponketa bereziak**  
Lantokientzako lan bereziak **Eraikinen mantentzea**

# AUPA EIBAR



**Zatoz pisu pilotua ikustera**

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

**900 11 00 22 • neinorhomes.com**

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2  
Tel. 943 20 41 94  
Fax. 943 82 00 06  
egurenyasociados@gmail.com

### AHOLKULARITZAK

**GAURVE**

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Azaroaren 30ean Greba Feminista Orkorra dago deituta. Eibarko Greba Batzordea buru-belarri aritu da ekintzak prestatzen eta A30-areninguruan esandakoak bildu ditugu gure YouTubeko kanalean aurkitu ditzakezuen lau bideotan.



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Spa bezeroek erantzun bila

Saunaren temperatura: Spa irekitzen dutenean ez da temperatura egokian egoten, 09:40an ez dago berotuta. Spa goizetan 09:00etan irekitzen bada eta larunbat arratsaldetan 17:00etan, zerbitzu guztiak martxan egon behar dute ireki orduko, saunak barne.

Sauna hezean: argirik ez dago aspalditik, eta norbaitek min hartu dezake ilunpetan. Gainera, usain txarra egoten da beti, nahiz eta batzuetan eukalpto esentzia bat ipintzen duten; baina hori ez da ona, zikinkeriarene usaina mozorrotu besterik ez du egiten, ez du ezabatzen. Saunetan ez dago termometrorik, ez dakigu zer temperaturan gauden, eta garrantzitsua da jakitea, batez ere arazo kardiobaskularrak dituztenen kasuan. Sauna lehorrean lehen bazegoen, baina ez dute berriz ezarri. Derrigorrezkoa da saunan zer temperaturatan gauden jakitea, osasun arazoak ekiditeko.

Aldageletako, saunetako eta igerilekuetako higieenea negargarria da. Harrerakoari, errespetuz, arazoren bat dagoela jakinarazi zaionean, erantzun zakarrak eta aurpegi txarrak jasan izan ditugu.

Azkenik, azken hamabost egunotan honakoa jasaten ari gara: temperaturari dagokionez, ura hotz dago, temperatura optimoa baino hiru gradu eta erdi gutxiagotan. Baina irekita jarraitzen du, konpondu gabe, bezeroei formalki ezer jakinarazi gabe, eta dagoeneko ordainduta dagoen zerbitzu osoa eman gabe...

Egia esan, zerrenda luze batekin jarrai genezake, baina gehiegi ez luzatzeko erabaki dugu garrantzitsuena iruditzen zaiguna azaltzea. Kudeaketa tamalgarrria, Udaletxe jauna. Spa bezeroek erantzunak eskatzen dituzte.

**Spa erabiltzaileen talde bat**

## Hortik esanak



Alarma jotzea da hau esatea: "Erraustegia kutsatzen ari da". Eta hori esan behar da, baina esan behar da baita ere erraustegiak badituela alternatibak, eta batzuk aberasten ari direla alternatiba horiek izorratuz. Hori da alarma jotzea. Baina sute bat egon delako hara kamera bidaltzea, hango herritarrei galdetzea: "Zuri zer iruditzen zaizu?". Hori alarmismo merkea da. Eta gehiegi erabiltzen da Euskal Herrian, eta munduan.

**PELLO ZUBIRIA, Argiako kazetaria**

Gaixotasun mental bat dagoenean, estigma handia dago. Ez dugu gauza bera pentsatzen gaixotasun fisikoen inguruan. Norbaitek minbizia badu, babesa ematen diogu, ulermena. Aldiz, maiz esaten diogu depresioa daukan jendeari bere aldetik gehiago jarri behar duela. Batzuetan ezjakintasunez, edo inpotentziatz, nola lagundu edo zer esan ez dakigunean sasierrietara egiten dugu, gaixo dagoenari errua botaz. Analfabeto psikoemozionalak gara; kulturaliki eta pedagogikoki asko dugu ikasteko.

**PATXI IZAGIRRE, psikologoa**

Israelgo blokeoak astoak ezinbesteko bihurtu ditu Gazan. Orain, debekatu egin nahi ditu. Burugogor eta ergel ospea duten animalioak ez dira batere tontoak, zirku gutxitan ikusten dira astoak! Gazan, 15 urteko blokeoaren ondoren, zaborra, obren eta bonben hondakinak, nekazaritza-produktuak eta abarrak gurdiz garraiatzen dituzte, bi dolar gasolina litroko luxua den munduko gune pobreenetariokan beideinkapen bat dira. Bada, animalien eskubideen aldeko elkarte baten helegitea medio, pisu gehiegi eramaten zutelakoan, Gazarako astoen esportazioari debekua ezarri zion Israelék. `Animalien´ kontra borrokatzen direla diote, baina astoekin samurra goak dira, bihozberagoak.

**MIKEL ZUBIMENDI, zutabegilea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ORRUA** → Zarata, txilio. "Hainbeste orrua egin biharragaz, iztarrixa urratuta daukat".

**ORRUA EGIN** → Zarataka, txilioka jardun. "Amesetan, orrua egin gura eta ezin neban". Zarataka haserre egin. "Aittak, hasarre, orrua egin detsu, eta errezoia kin".



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 24</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>ZAPATUA 25</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>DOMEKA 26</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ASTELEHENA 27</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>MARTITZENA 28</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>EGUAZTENA 29</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>EGUENA 30</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>BARIXAKUA 1</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)

**GAUEZ BETI**, 2023an,  
Castaño (J. Etxebarria, 7)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Laura Txopitea Esnaola**. 80 urte. 2023-11-15.
- **Maria Leibar Egidazu**. 105 urte. 2023-11-16.
- **Victor Jose Riesgo Lope**. 62 urte. 2023-11-19.
- **Pilar Anitua Urizar**. 82 urte. 2023-11-19.
- **Felisa Fernandez Mauleon**. 91 urte. 2023-11-21.
- **Aitor Dueñas Gantxegi**. 51 urte. 2023-11-21.

## Jaiotakoak

- **Ian Guevara Soto**. 2023-10-28.



## Enpresa Eguna egin dute bigarrenez Eibarko Ingeniaritza Eskolakoek

Eguaztenean egin zen II. Enpresa Eguna, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan, “energiaren sektoreko enpresak eta Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduko ikasleak eskolan bertan harremanetan jartzeko” asmoz.

Antolatzaileen berbetan, “partehartzea aurreko ediziokoa baino handiagoa izan da, guztira 20 enpresa bertaratu dira, eta horietatik heren bat inguru Debarrenean daude”. Ikasleei informazio zabala bertatik bertara ematen aritu ziren goiz osoan.



## 1945. urtean jaiotakoen uzta ederra

Urtero lez, primerako eguna ospatu zuen talde honek urrian. Pankarta eta guzti argazkia egin ondoren, Kasinon bapo bazkaldu zuten.

## Sanandresak ospatzeko plan biribila prestatu dute Gasteizen bizi direnek

Gasteizen bizi diren eibartarrek abenduaren 3an ospatuko dute XXIII. San Andres Eguna, 14:30ean El Portalon jatetxean hasiko den bazkariarekin. Aurretik, 12:30ean, eibartarren egoitza den Toloño tabernan geratuko dira, handik abiatuta kalejira egiteko. Antolaketa-lanak errazte aldera, joan nahi dutenek 50 euro sartu beharko dituzte azaroaren 29rako (izen-emateari buruzko azalpenak [www.eibargasteiz.blogspot.com](http://www.eibargasteiz.blogspot.com) blogaren eta @eibargasteiz kontuaren bidez emango dituzte). Bestalde, San Andres egunaren bezperan, txikiteoan ibiltzeko geratuko dira, 19:30ean Toloñon.



## Elkarretaratzea eta manifestazio zaratsua egingo dira indarkeria matxistaren kontra

Bihar (azaroak 25) Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna dela eta, Udalak herritar guztiak deitu nahi ditu 13:00ean Untzagan “Ez mendekoak, ez ikusezinak, no a la violencia machista” goiburuari jarraituta egingo den elkarretartzera. Horrez gain, Matraka eta Nalua talde feministek manifestazio zaratsua deitu dute arratsalderako, 18:30ean Untzagan.



## Bihar goizean egingo da Zumba maratoni solidarioa, Errebal Plazan

Nerea Blascok, KAXA gunearren laguntzarekin, Zumba Maratoni Solidarioaren VI. edizioa antolatu du biharko. Saioa 10:00etatik 12:00etara egingo da, Errebal Plazan, eta sarrerak 10 euro balio du (10 urtez azpikoentzat doan). Jasotako dirua Diagnostikatu Gabeko Gaixotasunen Kaltetuen Eibarko Elkarteari (AFESD) emango zaio. Blascorekin batera, Esther Gonzalez, Maider Lobera, Esti Garcia eta Rocio Bravo arituko dira, eta Arno DJ-aren musika eta sorpresak iragarri dituzte.



## Belaunaldien arteko moda desfileak arrakasta itzela lortu zuen

Aurreko barixakuan egin zen belaunaldien arteko moda-desfilea Untzaga Gizarte Etxean. Adin guztietako 24 modelo aritu ziren, bi pasetan Twins, Dandara, Roca eta Kopiaña Eibarko dendek lagatako jantziak erakusten. Tartean, Imanol Saladok kantaldia eskaini zuen. Antolatzaileak pozarren daude ekitaldiaren arrakastare-

kin: “Aurkezle lanetan aritu zen Maider Aranberrik ofizio handiz deskribatu zituen modeloen konjuntioak. Miss Grand Euskadi 2023 izan den Lorea Urkia eibartarra ere han izan zen, hurrengo egunean Gasteizen koroa bere ondokoari ematera joan aurretik. Eta ETB2ko “Quédate con Ane” saioak zuzeneko bi konexio egin zituen”.

**FUNEUSKADI**  
Grupua Añabata

**TANATORIO EIBAR**

**FUNERARIA MUGICA**  
Funerariak

**TANATORIO ERREBALO**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xoilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasako hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Errebaloko bulegoa:</b> Marquis de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

## Miren Etxaniz Elorza

**5. URTEURRENA**  
2018/11/18

“Amama, ez doguz ahazten zurekin pasautako momentuak”

**ESTAZIÑO KALEKO TXIKIXEN PARTEZ**  
- Arianne, Iban, Ainhoa, Unai, Iker, Jone, Noa eta Luka -

# Eibarko Greba Batzordeak egun osorako egitaraua prestatu du

Zaintza eskubide kolektiboaren alde, azaroaren 30erako Greba Feminista Orokorra dago deituta Euskal Herri osoan, baita Eibarren ere. Asteak daramatzate grebaren inguruko lanketa egiten, eta Eibarko Greba Batzordeak bilerak egin ditu astero, Andretxean. Greba egunaren atarian, herritarrei informazioa ahalik eta garbien azaltzeko bilera egin zuten barixakuan.

Eibarko Greba Batzordeak grebaren nondik norakoak laburbiltzeko saioan gogora ekarri zuten, “2018ko eta 2019ko greba feministak mugarri izan ziren, indar erakustaldi handiak, baita Eibarren ere”. Horien haritik tiraka, eta batez ere gaur egungo zaintza sistemaren ga-beziak ikusita, horren inguruko hausnarketa prozesua hasi zen: “80 eragile inguruk hartu zuten parte. Bertan irudikatu zuten zer ulertzen dugun zaintza publiko eta komunitarioaz, eta bi tresna sortu ziren, prozesuan aurrera egiteko: Greba Feminista Orokorra eta Herri akordioa”. Beraz, datorren asteko greba “tresna dela, eta ez helburua” azpimarratu nahi dute: “Epe luzeko erronka baten aurrean gaude. Helburua ez da Greba Feminista Orokorra aurrera ateratzea soilik, baizik eta epe luzeko borroka bati bide ematea”. Zentzu horretan, greba politikoa izango da: “Lanuzte bat baino gehiago izango da. Ehun produktibotzat hartzen dena gelditzea ez ezik, zaintza esparru osoa problematizatzeta eta berrantolatzea ere izango du helburu grebak. Zaintzak familiarizatua eta pribatizatua izateari utz diezaiola exijituko dugu, eta sistema osoa bere horretan auzitan jarri”.

## Zaintzaren inguruko herri akordioa

Hortik abiatuta, maila nazionalean zaintzaren inguruan herri akordio bat egiteko proposamena mahai gainean dagoela azpimarratu nahi dute: “Eibar mailan ere beharrezkoa ikusten dugu tokiko herri akordio bat sortzea. Benetan herri zaintzaile bat izan gaitezen, eta



- 00:00 GREBA EGUNAREN HASIERA
- 05:45 PIKETEAK INDUSTRIAGUNEETAN
- 10:00 ESPAZIO EGONKORRAREN IREKIERA Zumba eta Gosaria
- 11:00 KAFE TERTULIA eta ELKARTASUN PIKETEAK
- 12:30 ZAINTZAREN TESTIGUA - MANIFESTAZIOA Musika eta dantzaz Eibar reharkatuko dugu Kantoiatik hasita
- 14:30 HERRI BAZKARI AUTOGESTIONATUA Denona Denontzat
- 16:00 BAZKALOSTE GIROTUA

bestelako zaintza eredu baterantz trantsizio bat egiteko pausuak emateko”.

Eibarko Greba Batzordeko kideek gainerako herrietan emango ez den berezitasun bati aurre egin beharko diote: “San Andres eguna izateak eguna bera ezaugarritzen du. Euskal Herri mailako greba bat denez, ezin dugu eguna aldatu. Jakin badakigu gatazkatsua dela eta albo kalte batzuk ekarriko dituela Eibarren greba eguna San Andres egunean izateak, eta zaintza ardurak dituztenei ere zuzenean eragiten diela. Hau horrela izanik, beharrezkoa iruditu zitzaigun San Andres eguneko egitaraua aldatzea. Izan ere, Eibarren garrantzi berezia du San Andres eguneko egitaraua burutzeak, euskal kultura erdigunean jartzeak, bertako baserriarrei produktuak erosteak, aisialdiaz gozatzeko eta abarrek. Horregatik, Eibarko Udalarri San Andres eguneko egitaraua aldatzeko eskatu genion”. Baina egindako eskaerari bestela erantzun dio Udalak azkenean. Hala ere, eta oztopoak oztupo, Euskal Herri osoan burutuko den grebara batzeko deia egin nahi diote Eibarko herriari ere.





## Futbolaren industriako berrikuntzei buruzko topaketa antolatu dute

Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoak, Eibar Kirol Elkartarekin eta Sportek HUBekin elkarlanean, futbol-industriaren arloko berrikuntzen gainean eztabaidatzeko jardunaldia antolatu dute. “Futbolaren berrikuntza: Etorkizunera begira” izenburuari jarraituko dion topaketa abenduaren 4an izango da, 09:30etik 14:30era, Eibar Kirol Elkartearen instalazioetan. Antolatzaileen berbetan, “enpresek, startupek, ekintzaileek, I+G+Bko eragileek, kirol-entitate eta eragileek eta inbertsioetakoek, guztiek ere sektorean gertatzen ari diren aldaketei buruz eta teknologia berriek futbolaren industrian duten zereginari buruz eztabaidatzeko aukera izango dute”. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko, [www.sportekhub.eus](http://www.sportekhub.eus) helbidera jo daiteke.

## Elikagaien Bankuak asteburuan egingo du janari bilketa handia supermerkatuetan

Gaur eta bihar egingo du “elikagaien bilketa handia” Gipuzkoako Elikagaien Bankuak. Horrela, 2.000 boluntario inguru probintziako 78 supermerkatutan egongo dira herritarrek ematen duten janaria batzen (bonoak ere erosi ahal izango dira). Eibarren, ostera, boluntario falta dago, eta antolatzaileek laguntzera joateko deia egin diete eibartarrei. Iaz 220.360 kilo eta 521.139 euro jaso ziren eta hori gainditzea da helburua.

## Gazte Sozialisten 120 urte biltzen dituen erakusketa

Atzo arratsaldean zabaldu zuten Eibarko Herriaren Etxean alderdi sozialistako gazteei eskainitako erakusketa. Abenduaren 11ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik barixakura, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 18:30era (barixakuetan goizez bakarrik).





**LORADENDA**

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
 EZKONTZETARAKO LORAK  
 ZENTROAK  
 ERRAMUAK

*Enkarguak etxera*



**• tartak**

**• enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28  
 ☎ 943 20 79 73



ENRIKE SOSOLA

## Amantaldunak ez zukeen greba egingo, (guk bai)

Desagertu dira amantalak baserri gehienetatik. XXI. mendeko nekazariok ez dugu egunerokoan erabiltzen. Andra haiek bai, haiek erabiltzen zuten goizetik oheratzeraino kendu barik: semealaben mutur mukitsuak garbitzeko; ortuko barazkiak bildu eta etxeratzeko; arbolara igotakoan gereziak biltzeko; sua ezpalak eroan eta ixotu zedin haizea egiteko; eta non babes hoberik hiloba txikiak amantaldun bano? Lapiko beroari oratzeko ere ona amantala; asitzan jaiotako txito jaioberriak oilategira erretiratzeko; soro-lanetan ziharduteneri hamaiketako eramateko.

Horra zenbat zaintzatan laguntzen zuen amantalak: ume eta zaharrena, senarrarena, abereena, lurrarena, suarena.

Halanda be, amantaldunak ez zukeen greba feministarik egingo gaur bizi izan balitz. Zaintzek ez zioten utziko, sinistuta baitzegoen ezinbesteko zela bere beharra, zeregin "hil ala bizikoa"; eta ze arraio! zoriontsua zen maite zituenak zaintzen eta, gainera, kristau-fedea zuen indar-emaila eta akuilu. Beraz, greba zertarako? Bazterrak nahasteko baino ez.

Hortxe izan gara atzora arte. Amantala airatu da bai baserrietatik, baina inola ez zaintzaren banaketa bidegabea. Gizonok jarraitzen dugu oraindik etxalde gehien erdigunean, betiere kapitala mugitzen bada bertan, jakina, bestela ez. Dirua ikusten ez den baserriko espazioak emakumeak beteko ditu. Sukaldea, logelak, komuna, ortua berak gobernatuko ditu, eta kortaren zaindaria ere bera izango da.

Feminismoaren iraultza gauzak aldarazten ari da, borroka fruituak ematen dituela frogatuz. Baina bide luzea egiteko dugu oraindik. Baserriko gizonongandik hasita, neronongandik hasita: amantaldunaren zapaldu-kontzientzia ezaz probestu ginanonek eta garanonek aitortzaren bidea. Plazaren erdia eta protagonismoa izatearen adikzioa onartzearen bidea. Zaintza-zamaren parte neureganatzearen bidea.

Guzti horrengatik guk azaroaren 30ean, guretzat garrantzitsua den San Andres azoka izan arren, salmenta-greba egingo dugu. Bistakoa delako bidegabekeri-egoerak ez direla berez "aldatzen"; "aldarazi" egin behar direla.

**"Guretzat garrantzitsua den San Andres azoka izan arren, salmenta-greba egingo dugu. Bistakoa delako bidegabekeri-egoerak ez direla berez `aldatzen; `aldarazi' egin behar direla"**

# gremioen gida



## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnua: 943 12 73 50  
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## ELEKTRIZITATEA

**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.thelecer.com

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
HELBIDE  
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac  
KRISTAL ARIKO SOLUZIOAK  
info@cristalerjaacha.com  
943 203 903

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko  
**AROTZEGIA**  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 30 - 1. eta beheak  
Tfnua: 943 12 13 67 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeaz  
goza dezazun  
Azilain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnua: 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK

Tel. 667 54 89 16  
  
**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L.



**943-206776**

# Bakailao zaporearekin hasi gara Sanandresak ospatzen

Udalak sanandresetarako antolatu duen egitarauaren barruan, zapatu goizean hitzordu bikoitza hartu zuen Errebal Plazak. Batetik, San Andres XIX. eskolarteko bakailao-lehiaketa jokatu zen. Eibarko ikastetxe ezberdinetako 40 bikote aritu ziren lehia bizian, bakailaoa pil-pil erara prestatzen, etxekoek eta bertan zeuden sukaldari profesionalak emandako aholkuei jarraituta. Leire Elustondo, Xabier Gutierrez, Ramon Roteta, Joxema Azpeitia eta Iñaki Alfrageme sukaldariek osatu zuten epaimahaia eta, nabarmendu zuten, partaide guztiak oso maila ona erakutsi zuten. Eta, ikasleen arteko txapelketa amaitu eta, jarraian, Bacalaos Alkorta pintxo lehiaketaren 5. edizioa hasi zen. Bertan goi-mailako sukaldariak aritu ziren, nor baino nor. Edizio honetako sari potoloa Durangoko Kobika jatetxera joan zen, Iñigo Kortabitarte bertako sukaldaria izan baitzen garaile. Kortabitarterena ez zen banatu zen sari bakarra, ezta berak etxera eraman zuen bakarra ere. Izan ere, bakailaoaren tratamendu onenaren saria ere eskuratu zuen. Bestalde, kilometro 0 produktuen saria Elgoibarko Viento Sur jatetxeko Dorelin Castillok irabazi zuen eta herriko pintxorik onena Baratze jatetxeko Unai Altunak egin zuen.

Ikasleen arteko lehiaketaren bideoa ikusgai gure YouTube-n



Bi ekitaldietako argazki bildumak elkartearen webgunean ikusgai





## Antsietatea arintzeko ikastaroa abenduaren 14an

TRE izeneko ikastaroa antolatu du ...eta kitto!-k abenduaren 14rako Illunabarrian programaren barruan. Tentsio kroniko sakona askatzeko eta lasaitasun eta bake sententzia berrezartzeko gorputz-teknika iraultzailea da eta eskaintzen dituen onurak ez dira gutxi: “Kezka eta antsietatea gutxitzen ditu, energia, loa eta malgutatsuna hobetzen ditu, tentsioa eta giharretako mina murrizten ditu, laneko estresa murrizten du...”, diote ...eta

kitto!-tik. Ikastaroa elkartearen egotzian egingo da 18:30etik 21:30era. Izena emateko deitu 943200918 telefonora edo mezua idatzi elkarte@etakitto.eus helbidera (5€). Bestetik, joan den martitzenean, Oteiza mai-sua gogoratu tailerra egin zen ...eta kitto!-n. Parte-hartzaileek XX. mendeko euskal artistarik esanguratsuenetarikoa izan zenaren lana ezagutu zuten, hain ospetsuak diren Kutxa Hutsen antzeko eskulturak sortuz.



Oteizaren tailerreko taldea euren lanekin.

## Eriz magoa ikusteko gonbidapenak ...eta kitto!-n jaso daitezke

Datorren abenduaren 2an, zapatua, Eriz magoak ikuskizuna eskainiko du Coliseon, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familientzat antolatu du ...eta kitto!-k magia-ikuskizuna, euren

artean banatu ditu lehenengo gonbidapenak, baina astelehenaz gerzotik edonor pasa daiteke elkartetik gonbidapenak jasotzera, 08:30etik 13:00era eta 17:30etik 19:00etara. Elkartetik gogoratu dutenez, “familian joateko ikuskizuna da, umeak ezingo dira heldurik gabe sartu eta, heldu bakoitzeko, asko jota, hiru ume sartuko dira”.



## San Andres Bertso Jaialdia gaur Coliseon

Arratsaldeko 20:00etan bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira eta, behin hori eginda, ekingo zaio aurtengo jaialdiari. Maddalen Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Jon Maia, Oihana Bartra, Unai Agirre eta Unai Iturriaga bertsolariak jardungo dute Jon Mikel Mujikaren esanetara. Sarrerak 17:30ean jarriko dira salgai Coliseoko leihatilan bertan (8€).

## Azkeneko Barixakuak Jolasian Urkizun

Gaur esango diogu agur aurtengo Barixakuak Jolasian ekimenari Urkizuko parkean. 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak antolatuko dira, doan, 17:00etatik 18:00etara iturriaren aldean eta, euria egingo balu, Azpirineko aterpean. Urtarrilean berriro ekingo dio ...eta kitto!-k eskaintza honi.



**Ondo pasa  
Sanandresetan!**

T. Etxebarria, 8

**BAR BUENOS AIRES**

Untzaga, 5

**Arkupe  
Taberna**

Isasi, 2  
689 057 149

**albert  
taberna**

Armagin, 1  
943 383 177

ZIRIAKO AGIRRE, 1

**TXOKO**

UNTZAGA PLAZA, 10

Zatoz gure sukaldetik ateratzen diren platerak eta momentuan egindako pintxo bereziak dastatzera, espazio eta giro atseginean, eta jatomi-deltara ezberdinetako ardorez igunduta.

Bidebarrieta 39an  
URKIZUO PARKEAREN ONDOAN

**baratzre**

Tel. 943 84 55 03

**LUSAI**

ARMOZAU, BAZKALOU,  
MERIENDAU ETA AFALDU LUSAI

@LUSATEIBAR 747 451 865 ERREBAL PLAZIA

# Baserritarrentzat erakusleihorik onena

Udan ospatzen ditugun Sanjuaneekin batera, Sanandresak dira jairik maitatuenak eibartarrantzat. San Andres egunean egiten den nekazal azoka ere garrantzitsuenetako bat da. Aurten, baina, jaiak eta grebarako deialdiak bat egitea egokitu zaigu egutegian eta, hori dela eta, San Andres egunean ohikoak izaten diren hainbat ekitaldi ez dira egun horretan egingo, askok jaiak hurrengo zapatara, abenduaren 2ra, pasatzeko proposamenarekin bat egitea erabaki dutelako.



**G**aur 20:00etan hasiko da...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatutako San Andres Bertso Jaialdia, Coliseon. Puntako sei bertsolari izango ditugu euren onena ematen. Beti bezala, jaialdiaren aurretik egingo da bertso-paper lehiaketako sari-banaketa eta irabazleek bertso sarituak kantatuko dituzte. Sarrerak arratsaldeko 17:30etik aurrera jarriko dira salgai, Coliseoko leihatilan (8 eurotan).

Bihar, berriz, Eibarko Txirrindulari Elkarateak denboraldiari agur esango dio, goizetik hasi eta gaueraino Untzagan ospatuko den Txistorraren Egunaren 19. edizioan. Jai-hasierako txotxa Peio Osoro triatleta eibartarrak eta Javier Garcia kazetari bizkaitarrak egingo dute. Txistorra pintxoak, berriz, egun osoan erosi ahalko dira, 12:15etik 15:00etara eta 18:30etik 21:00etara. Eta, horrekin batera, ez da musikarik faltako: eguerdian Debako dultzaineroak ibiliko dira Untzaga eta inguruak girotzen, eta 19:00etatik aurrera Ustekabe fanfarreak animatuko ditu kaleak. Ordu berean, baina Errebal Plazan, Danel Santiago DJak gaztetxoentzat saioa egingo du, 22:00ak arte.

San Andres 29. Bakailao Txapelketaren Sari Nagusia, bestetik, domekan jokatuko





San Andres Azokaren 44. edizioan parte hartuko duten 45 baserriar eta ekoizleen postuak bi karpatan banatuko dituzte: fruta eta barazkiak Untzagan, udaletxeko plazan egongo dira, eta gainerakoak Txaltxa Zelaian. SILBIA HERNANDEZ

da, 11:00etatik aurrera, Untzagan. Aurten 35 bikotek hartuko dute parte.

Eguaztenean, San Andres bezperan, 19:00etatik 22:00etara elektrotzaranga batek animatuko ditu kaleak eta, ondoren, 22:30ean, Laket taldearen eskutik erromeria egingo da, Untzagako karpan.

### **Abereen erakusketa Calbetonen eta aizkolariak T. Etxebarria kalearen sarreran**

Udalak antolatutako programa eguenean, San Andres egunean, amaituko da. Aurreko astean egin zuten aurkezpenean azaldutakoaren arabera, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokaren 44. edizioa izango da protagonista nagusia, goiz osoan zehar. Azken urteotako martxan, Untzagan eta Txaltxa Zelaian ipiniko dituzten karpatan ipiniko dituzte azokako postuak, 45 guztira. Udalak antolatzen duen lehiaketarako izena eman dutenen produktuak beste urte batzuetako berberak izango dira: barazkiak (10 postu), fruta (postu bakarra), ogia (15 postu), gazta (10 postu), eztia (lau postu), txakolina (bi postu), loreak (postu bakarra) eta Debarreneko gazta (bi postu). Azken edizioetan bezala, Untzagako karpan fruta eta barazki-ekoizleen postuak egongo dira, eta Txaltxa Zelaiko karpan gainerako ekoizleenak.

## **Barazkiak, fruta, ogia, gazta, eztia, txakolina, loreak... erosteko aukera ederra egongo da, eta lehiaketako kategoria bakoitzeko onenak sarituko ditu Eibarko Udalak**

Azokarekin batera, inguruko baserrietatik (Aritxulueta, Mandiolagainea, Zumaran, Arizmendigoikoa, Orbe, Agirreazpikoa, Untzeta, Gisasola, Mendigoiti eta Sumendiaga) ekarritako abereak erakutsiko dituzte, Calbeton kalean eta San Andres elizako atarian.

Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du, baina beste batzuetan baino goizago (10:00ak aldera). Eta, eguerdian, Toribio Etxebarria kaleak binakako aizkolari-txapelketa hartuko du, baina oraingoan kalearen sarreretako batean (anbulatorio inguruan) lehiatuko dira kirolariak, "horrela erosoago aritzeko".

Eta, amaitzeko, Udalak antolatutako lehiaketetako sariak banatuko dituzte, Untzagan, 13:00etan.



Donostian orain dela urte batzuk egindako ekimenaren antzekoa egingo da Eibarren.

## 365 Egun Euskaraz Eibarren

*365 Egun* goiburu ezaguna bere egingo du aurtengo Euskararen Egunak Eibarren, euskaraz eta Eibarren berbak gehituz. Eibarko Euskalgintzaren mahaiak asteak daramatza elkartzen eta aurtengo Euskararen Eguna hasi da dagoeneko forma hartzen. Forma baino gehiago, egunean bertan antolatutako den ekintza pentsatuta dute-eta: “365 Egun esaldia izango da Euskararen Eguneko protagonista nagusia. Zazpi hizki horietako bakoitza agertzen den beste horrenbeste panel handi egin ditugu, hizkiak hutsik egongo dira eta herritarrek egin beharko dutena da hutsune horiek pegatinekin bete, horrela hizki bakoitzak kolore bat izango du”, diote Euskalgintzaren mahaitik. Hori guztia jai-giroan egingo da,

musikak lagunduta, abenduaren 3an, domeka, eguerdiko 13:00etatik 14:30era Untzagan, harmailen aldean, eta euria egingo balu Untzagako karpan. Antolatzaileek argi zuten dinamika parte-hartzailea egin nahi zutela, herritar guztiek parte hartzeko modukoa, haur zein heldu, eta dei egiten diete herriko euskaltzale guztiei, “etor daitezela aurten ere, ozen aldarrikatzera Eibarren euskaraz bizi nahi dugula”.

### Adimen artifiziala ere euskaraz

Euskararen Egunaren bueltan “Gaitu maratokia” izeneko ekintza ere antolatu da, eta eibartarrok, beraz, badugu erronka berri bat: “Adimen artifizialak euskaraz egin dezan milaka eredu behar ditu, hau da, euskaraz erakutsi behar diogu.

GAITU proiektuaren bidez, Mozi-lla fundazioak martxan jarritako Common Voice ekimena elikatuko da. Horrela, euskarak testuinguru digitalean dagokion presentzia izango du, teknologia arloan duen erabilgarritasuna finkatuko du eta erabilera-eremuak handituko ditu”, adierazi digu Ane Albisu Akebaiko arduradunak.

Euskal Herri mailako kanpaina urrian abiatu zen eta herri askotan, baita Eibarren ere, hainbat maratoi antolatu dira Euskararen Egunaren inguruan. Eibartarron kasuan maratoi horretarako erronka izango da bi egunetan 12.500 esaldi grabatzea. Akebairen guardasolpean antolatutako ekimen honetan hainbat



eragilek hartuko dute parte, baina herritarrak edozein momentutan hurbildu daitezke ondorengo leku eta ordutegian: Abenduaren 1ean, barixakua, Errebalen 18:00etatik 21:00etara, eta abenduaren 2an, zapatua, Untzagan (harmailen aldean) 11:00etatik 14:00etara. Edozein arrazoi dela-eta egun horietan parte hartzeko aukerarik ez duenak edota bere kabuz egitea nahiago duenak QRan aurkituko ditu jarraibideak.





**GABONETAKO  
BIGARREN ESKUKO  
AZOKA**  
abenduak  
16

**EIBAR**

**ERREBAL PLAZA, 10:00etatik 14:00etara** **abenduaren 16an**

Erreserbatu mahai bat, behar ez dituzun gauzak saltzeko, haien bizi-iraupena luzatuko duzu homela. Eibarko elkarte, ikastetxe eta herritar guztiak har dezakete parte. Bi aukera:

1. Erreserbatu salmenta-postu bat (mahai bat) eta zereorek saldu erabilitako zeure gauzak.
2. Gordailu-salmentan utzi zure objektuak (10 gehienez) eta antolakuntza-taldekoak arduratuko dira salmentaz. Ezin dira eraman: anropa eta osagiriak, bolumen handiko altzariak...

Egunean bertan eraman gauzak 09:00etatik 10:00etara.  
Oharra: aukera batean zehar bestean parte hartzeko, nahitaezkoa da auzer erreserba egitea eta adin nagusikoa izatea. Hitzordua emango da.

**Izena emateko epea: azararen 28tik abenduaren 13ra (biak barne)**

Izen-emateak eta informazio gehiago:  
[www.merkabi.eus/eibar](http://www.merkabi.eus/eibar) tel. 943 670 249

**TAILERRA**  
Egin Gabonetako apaingarriak material birziklatuekin  
11:30 – 14:00, Errebal Plaza. **DOAN**  
Bi taller: 3-6 urteko haurrentzat (heldu batez lagunduta) eta 7 urteko aurrerakoentzat.  
Iraupena 25 min. Bost tranda aukeran, 11:30etik 13:30era. Plaza mugatuak.  
Hartu zure tranda egun berean!

Egoera onean dauden erabiltako objektuak berriz ere erabiliz, hiri-hondakin gutxiago sortzea lortzen dugu.



# LEHIAKETA!

- 4. ASTEKO SARIA: COLISEORAKO EDO MUSEORAKO 2 SARRERA.
- HILABETEKO SARIA\*: 100€-KO EROSKETA-BONOA EIBARKO DENDETAN ERABILTZEKO.  
\*Azarok 3, 10, 17 eta 24ko lehiaketetan parte hartu eta gehien sarratu dituzarenentzat (berdinaketa badiago, zuzketa bidez egingo da)

**SARTU ONDORENGO ESTEKAN ETA ERANTZUN 3 GALDERAK:**







<https://labur.eus/astindu4>






## PARTE-HARTZAILEAK

Aguinaspí, Akara, Aloha, Ametsa, Astelena, Azkena, Bacoleku (Ego Gain),  
Bacoleku (Urkizu), Banaka, Baratze, Birjiñape Berria, Bossa,  
Ez Dok Zai Zoi, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Lusai, Trinkete

# VIII. GILDA LEHIAKETA

## EIBARREN ABENDUAK 12 13 14

### 3 SARI:

Gilda tradizionalari (150€) / Gilda berritzaileari (150€) / Herritarrena: 150€

# Alarguntzari eta zurztasunari kolorea

Lanpetuta dabilta Eibarko Altzoa emakume alargunen elkartearen. Urtean zehar egiten dituzten ekintzez gain, agenda bete-beteta dute egunotan. Joan den asteburuan Gernikako Elai-Alai aretoan egin zen Euskadiko Alargunen Federazioaren (FEVI) urteko batzarrean izan ziren, presidentzia eurei dagokie-eta. Eta oraingoan, bihar hain zuzen ere, emakumeen aurkako indarkeria salatzen matzak jarriko dituzte herriko zuhaitzetan.

**B**ihar, 11:00etan hasita, Matzak Ehuntzen Indarkeria Sexistaren Aurka ekintza egingo dute Untzagan. Altzoakoek Emakumearen Mahaiko kideekin lankidetzan bultzaturiko egitasmoa da hau eta uda inguruan Matza Solidarioak ekimenean ehundutako piezekin (gehi azken asteotan ehundu dituztenekin) herriko zuhaitzak jantziko dituzte. “Pieza koloretsuak dira eta, horien bitartez, emakumeen aurkako indarkeria ikusarazi nahi dugu”, esan digu Arrate Aranceta Altzoa elkartearen presidentea. “Indarkeria asko dago eta mota askotakoak. Indarkeria ez dago bakarrik hilketak gertatzen direnean edo biolentzia fisikoa dagoenean, beste era bateko indarkeriak ere badaude: psikologikoa, erakundeena...”, gehitzen du.

Arancetaz gain, Altzoako beste kide batzuk etorri dira gurera elkartearen inguruan berba egiteko: Celsa Diaz, Angelita Iriondo,



Mari Paz Fernandez de Maruri eta Josefa de la Fuente. Eurak dira elkarteko kiderik aktiboenak eta azken asteotan buru belarri ibili dira matazak ehuntzen, beste ekintza batzuk egiteaz gain. “Bi maleta bete ditugu ehundutako piezekin”, esan digute.

Zuhaitzak inguratuko dituzte matazekin eta 8-10 egun inguru egongo dira han. “Bestalde, sortu dugun material bat zuhaitzetan jarri ezin daitekeenez, beste modu batean erakutsiko dugu. Adibidez, tira batzuk ditugu, mezu batzuekin, eta jendeak hartzea eta erakustea da asmoa. ‘Kaleak gureak dira’ eta ‘Elkarrekin ahal dugu’ jartzen du bertan”, diosku Arancetak. Horretarako, boluntarioen beharra dutela agertu dute eta eguraldia lagun izatea espero dute biharko egunean.

### Arazo berriei erantzunak

Altzoako kideak alargunak dira eta, presidentearen berbetan: “alarguntzarengatik eta zurtzatsunarengatik, eta egoera horiek sortzen dituzten arazoenguz inguruan egiten dugu lan”. Era berean, beste problematika batzuk ere lantzen dituzte, emakumeen aurkako indarkeria bezala, eta euren esku dagoena egiten dute laguntzeko.

Gurera etorri den boskotea da Altzoako nukleo aktiboa eta gazteena, eta lan egiteko gogorik ez zaie falta. Dena dela, gaur egungo egoeraren analisi hau egiten du Arancetak: “Elkarteetan, orokorrean, orain arte lortu dugunarekin konformatu gara. Sasoi batean 10 gauza eskatzen genituen (zenbaki



Joan den zapatuan FEVI-ren urteko batzarrean egon ziren Altzoakoak. YANIRE SAGREDO

## >>> Matazak Ehuntzen Indarkeria Sexistaren Aurka ekintza egingo dute bihar goizean Untzagan

bat ipintzeagatik), eta horietatik zazpi lortu ditugu eta konformatu egin gara. Lortu dena asko izan da eta oso ondo dago, baina badaude lortu ez diren hiru gauza, eta ikusten ez diren beste zazpi gauza berri sortu dira. Ez gara konturatzen lortu ez ditugun hiru gauza horiek eta zazpi berriak lortzeko lan egin dezakegula. Norbait etorri daiteke eta esan arazo jakin bat dagoela. Agian guk ez dugu ikusi, baina arazoa hor dago. 74 urtetik gorakoak gara bostok eta ez ditugu gazteagoek dituzten



Gurera etorri ziren Altzoako kideak. EKHIBELAR

arazoak ikusten, baina arazoak hor daude eta elkarteok gehiago mugitu beharko ginateke”.

Arazo berri horiei erantzuna emateko asmoz, Altzoak ateak irekitzen die herriko alargunei. Euren esperientzia oso baliagarria izan daiteke arazo edo egoera ezberdinei erantzuteko eta, gainera, taldearen indarra banakakoena baino ahaltsuagoa da. “Erakundeetara edo edozein tokira joateko, kasu gehiago egiten dizute elkarte baten izenean bazoaz”, esan digutenez.

#### **FEVI-ren presidentetza**

Urte guztian zehar aktibo dagoen elkarte da Altzoa, eta orain are gehiago. Izan ere, FEVI-ren presidentetza hartu du eta lan gehiago ekarri die horrek. Dena dela, gogo onez egin diote aurre erronkari eta Euskal Herriko alargunen beste elkarteekin hartu-emana izatea oso positiboa dela diote, “elkarlanetik eta elkar ezagutzatik gauza onak irten daitezkeelako”.

## **>>> Alarguntza eta zurtasuna dira Altzoak lantzen dituen gai nagusiak**

## **>>> Altzoako kideak Euskadiko Alargunen Federazioaren presidentetzan egongo dira datozen urteotan**

Beste elkarten esperientziak ezagutzeko aukera dute Altzoakoe, baina besteek Eibarren urtean (eta urteetan) zehar egiten diren ekintza ugarien berri izango dute. “Normalean, martitzenetan elkartzen gara eta, sasoiaren araber, egin beharreko lanak egiten ditugu. Gure artean berba egiteko ere aprobetxatzen dugu. Adibidez, azken aldian puntua egiten ibili gara”, azaldu digute. “Eguaztenetan, hitzaldiak edo antzeko ekintzak egiten ditugu. Komunikazioa, autolaguntza, mindfulness, erlaxazioa, umore feminista eta bestelako gaiak landu ditugu”, gehitu dute.

FEVI-ren presidentetzan lau urte egoteko asmoa dute Altzoakoe eta esperientzia aberasgarria izango dela uste dute. “Elkarte bakoitzak bere izaera du, ezberdinak gara, eta toki bakoitzean egiten diren gauza onak ikasteko balio dezake, gauza txarrak ahaztuz”, Arancetaren ustez.



# Etxeak zure esku

## Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horieta diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa... Eskuartein daukagun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta, informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektoreko adituengana: zeuen premiei erantzun dizuete.

		<a href="http://www.aukera-inmobiliaria.com">www.aukera-inmobiliaria.com</a> 943 12 13 95 Bidebarrieta 29	
 <p><b>Txaltxa Zelai</b> Ref. 2482 4 logela. 2 balkoi. Azken solairua. Ilogailua. Eguzkitsu eta argitsua. <b>170.000€</b></p>	 <p><b>Bista Eder</b> Ref. 2460 3 logela. Terraza handia. Ilogailua eta calefakzioa. <b>125.000€</b></p>	 <p><b>Urkizu</b> Ref. 2489 3 logela. 2 komun. balkoia eta trastelekua. 2 garaje ibi aukeran. <b>199.000€</b></p>	 <p><b>Jardiñeta</b> Ref. 2356 2 logela. Gurtiz berritua. Garajea eta trastelekua aukeran. <b>199.000€</b></p>
 <p><b>Ubitxa</b> Ref. 2487 3 logela. Terraza paregabea. Pisu altu eta argitsua. Ilogailua. <b>190.000€</b></p>	 <p><b>Legarre</b> Ref. 2491 3 logela. Erreformatzeko. Leihoak aldatuta. Pisu altua eta argitsua. <b>110.000€</b></p>	 <p><b>Txaltxa Zelai</b> Ref. 2377 2 logela. Bizitzera sartzeko. Ilogailua 0 kotara. <b>182.000€</b></p>	 <p><b>Barakaldo</b> Ref. 2466 Babes Ofizialekoa. 2 logela. 2 komun. Garajea eta trastelekua. <b>139.000€</b></p>

**ek!** Zure publizitatea herriko aldizkarian  
**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus

  
**Errebal, 20**  
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344  
[www.lnmoarregi.com](http://www.lnmoarregi.com)



**San Juan** Ref. 172

85 m<sup>2</sup>. 3 logela. Altua, balkoiarekin. Argitsua eta eguzkitsua.  
**255.000€**



**Ipurua ingurua** Ref. 129

79 m<sup>2</sup>. 3 logela. Berriztua. Balkoiarekin. Bistak. Igogailua.  
**215.000€**



**Bista Eder** Ref. 246

70 m<sup>2</sup>. Balkoiarekin. Berritzeko proposamena. Igogailua.  
**149.000€**



**J. Etxeberria** Ref. 175

101 m<sup>2</sup>. Erdigunean. Pisu ederra balkoiarekin.  
**250.000€**



**Ipurua ingurua** Ref. 171

3 logela. Berriztua. Igogailua.  
**179.000€**



**Legarre ingurua** Ref. 176

65 m<sup>2</sup>. 2 logela. Berriztua. Igogailua.  
**165.000€**



**Erdigunea**

Eskaintza zabala lokal, garaje eta trasteroetan.  
**Kontsultatu**



**Pagaegi** Ref. 139

75 m<sup>2</sup>. 3 logela. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko. Igogailua.  
**185.000€**



**Urkizu dorreak** Ref. 199

3 logela. 2 komun. Igogailua. Erostea aukera.  
**170.000€**



**Elgeta** Ref. 145

Adosatua. Lorategi eta baratza. 4 logela. 2 komun.  
**Kontsultatu**



**Urkizu ingurua** Ref. 204

Eguzkitsua eta zabala. Dotorea. Guztiz jantzita. Igogailua.  
**189.000€**



**San Kristobal** Ref. 196

2 logela. Balkoiarekin. Bizitzera sartzeko.  
**99.000€**



**Txaltxa Zelai**

2 logela. Balkoiarekin. Pisu altua eta eguzkitsua.  
**118.000€**



**Amaña** Ref. 249

3 logela. Eguzkitsua. Bistak. Balkoiarekin. Igogailua.  
**145.000€**



**Ibarkurutze** Ref. 229

Pisu altua. Terrazarekin. Partekatze zona berriztua.  
**390.000€**



**F. Calbeton** Ref. 170

Duplexa. Erdigunean. Dotorea. 4 logela. Balkoiarekin.  
**Kontsultatu**





**Gestio inmobiliarioa:**  
alokairuak, erosketak,  
salmentak, tasazioak,  
kontratuak...

**ETXEBIZITZA,  
GARAJE  
eta LOKALEN  
Salerosketa  
eta alokairua**

Galdetu zure etxebizitzaren  
**Finantziatorako Bidea:**  
mailegu hipotekarioak,  
pertsonalak...

**Informazio Pertsonalizatua**

*32 urtetik goragoko esperientzia*

Toribio Etxebarria, 1  
943 20 03 58  
fincas@euki.com  
www.euki.com



API 323



## **NEGOZIO-IKUSPEGIA BADUZU, ESKANEATU KODEA.**


Irudia ulertzen ez baduzu,  
orrialdea pasa dezakezu.

**MERKATARITZA-LOKALAK | LOKAL AUXILIARRAK | GARAJE-PLAZAK**

Ekin zure negozioari Eibarko  
merkataritza-gune berrian

**ERREKATXU BERRI BIZIGUNEA**

AMETS BAT, LOKAL BAT, NEGOZIO BAT

 **Loiola**

[www.errekatxuberri.loiola.com](http://www.errekatxuberri.loiola.com)

**943 150 350**



Hónek kaletarrok sano egongo dittuk/dittun? SILBIAHERNANDEZ

# “Literatura geroz eta gutxiago interesatzen zait, bai irakurle gisa, bai idazle gisa”

LANDER GARRO • Idazlea



Lander Garrok (Errenteria, 1975) *Faith* bere hirugarren eleberria ekarri du Harixa Emoten literatura-tertulien azkeneko saiora. Xabi Ugarte berreskuratu du Garrok lan honetan, aurretik ere bere eleberrietan azaltzen den protagonista, eta Bartzelonara eraman du oraingoan, Euskal Herriko giro politikotik ihesi. Liburuaren gainean ez ezik, bere jardunaren eta, oro har, liburugintzaren gainean ere hitz egiteko aukera eta tartea eskaini dizkigu Landerrek.

## “Gerra Txikia” nobelako protagonista berreskuratu duzu *Faith* liburuan. Zergatik jo duzu berriro Xabi Ugarterengana?

Nobela haren segida delako. Biak dira nobela autobiografikoak, eta Xabi Ugarte nire alter-egoa da, nire beste ni baten antzekoa. Ez naiz ni, eraikuntza literario bat da, baina nire bizitzan gertatutako hainbat pasarte traumatiko jorratu nahi nituen, bai *Gerra txikian*, eta bai *Faith*-en.

## Zer du autobiografikotik zure azkeneko lan honek? Zer du pertsonaia nagusiak zugandik eta zer da fikzioa?

Oso zaila da pertsonaia literario batek norberarengandik zenbat daukan zehaztea, oso eztabaida filosofiko sakona dago galdera horren azpian. Nobela guztiak dira kontakizunak, eta kontakizun oro da tranpa bat, idazleak oso hautaketa tendentziosoa egiten duelako beti. Bestetik, norberak badaki zer esaten duen, baina inoiz ez daki irakurleak zer ulertzen duen, eta zentzu horretan ere zure hitzen esentzia galdu egiten da bidean. Oso gauza inperfektoa da komunikazioa.

## Zer dute antzeko eta zer bereizgarri hiru eleberriek (Kontrarioa, *Gerra Txikia* eta *Faith*)?

Esango nuke oso estilo markatua daukatela nire kontakizun guztiek, nire buruari oso fidela naizela idazten

jartzen naizen guztietan. Ez naiz ahotsaren bila jarduten duen idazle horietakoa, edo esateko manera batekin nekatu eta beste baten bila hasten denetakoa. Ez zaizkit tendentziak interesatzen. Liburutik liburura gutxi aldatzen diren idazleen eskolakoa naiz seguruen, batik bat amerikar eskolakoa. John Fante, Truman Capote, John Ford eta halakoak gustatzen zaizkit. Liburutik liburura beren buruarekin fidelak dira, nahiz liburuak elkarren artean diferenteak izan, ez horrenbeste idazkera aldetik, baizik eta aboradatzen dituzten istorioak eta pertsonaiak diferenteak direlako.

## Zerk eraman zintuen liburu idaztera?

Bi ardatz nagusi ditu nire liburugintzak, beharbada hiru. Alde batetik gose literarioa dago, artefaktu interesgarriak edo gogoangarriak eraikitzekeo anbizioa, eta hor bilaketa literario sakon bat dago. Inportantea da hau esatea, batzuetan bai baitirudi idazleak mezu bat transmititu nahi duela, baina niretzat garrantzitsuena literatura da. Hau esanda, bigarren ardatz nagusi bat ere badago: memoria politikoa. Zorigaitzez geure herriaren garapen historikoa baldintzatu duten pasarte traumatikoetan nahasirik bizi izan naiz, eta liburuetan gertakarion salaketa egin nahi izan dut beti. *Faith*en kasuan, 90. hamarraldiko atxiloteta arbitrarioen gaia



## "90. hamarraldiko atxiloketa arbitrarioen gaia jorratu nahi nuen, oso gutxi hitz egin da horretaz, eta oso gai klabea da gure bilakaera politikoa ulertzeko"

jorratu nahi nuen, Jaurlaritzak agindu eta euskal poliziak egiten zituenak batez ere. Oso gutxi hitz egin da horretaz, eta oso gai klabea da gure bilakaera politikoa ulertzeko.

### **Amaren figurak indarra du nobelan. Nolabait sufritzen duten amei aitortza egin nahi izan diezu?**

Nire lehen liburuko lehen ipuinetik amaren figura ika-ragarri presente egon da beti nire obran. Ariketa psikoanalitiko sakona egin beharko nuke zergatik jakiteko, baina labur esanda eta azalpen azaleko bat ematearren, esango nuke gure ama niretzat figura garrantzitsua izan dela, haren alboan oso-osone txarrak pasatzea tokatu zaidalako, eta une horietan beti asmatu izan dugulako elkarren aldamenean goxo egoten, elkar laguntzen eta zaintzen. Amak erakutsi dit naizen ia guztia, pertsona autonomoa izaten, nire buruan fedea izaten, eta aurrera ateratzeko irudimena erabiltzen.

### **Liburuak ez du atal edo kapitulurik, jarraian doa dena. Nola konpondu zara idazteko eta antolatzeke?**

Beno, testu jarraitu faltua da, eszenak elkarren artean oso ondo bereziak daudelako. Ez naiz irakurlea ulermen aldetik ataka zailetan jartzea gustuko duen idazleatkoa, are gehiago, idazketa mota hori oso gorrotagarria egiten zait.

### **Esan izan duzu *Faith* eta gero zaila egingo zaizula beste ezer idaztea. Hala da?**

Literatura geroz eta gutxiago interesatzen zait, bai irakurle gisa, eta bai idazle gisa. Beharbada ongiegi ezagutzen dut hizkuntza literarioa, haren tolesdurak eta tranpak, eta jada gauza gutxik asebetetzen naute, errepikakorrek suertatzen zaizkidalako. Ez naiz inoiz liburu bat idazteko gaiaren bila aritu, liburuak etorri egin zaizkit, eta



bultzada garbi baten ondorioz idatzi ditut. Bultzada hori etortzen bada, idatziko dut; ez bada etortzen zero segundo galduko ditut idazteko zer edo zeren bila. Ez nau kezkatzen libururik ez idaztearen ideiak.

### **Nobelarekin sentitzen zara erosoen?**

Nobela da literaturan genero gorena eta interesgarriena, konplexuena, sakonena eta zailena. Beste generoak jolasak dire niretzat. Salbuespenak daude, noski, beste generoetan oso onak diren egileak daudelako, hain-hain onak, liburu interesgarriak idazten baitituztela berez genero ahulak diren horiek erabilia.

### **Kartzelaz idatzi duzu liburuan eta kartzelari buruz egin dituzu bi dokumental (*Bi urte, lau hilabete eta egun bat* eta *Tipularen sehaska kanta*). Nolako esperientzia izan da bi dokumental horiek egitea?**

Oso gogorra da dokumental bat aurrera ateratzea, eta une honetan sentimendua daukat gutxi disfrutatu dudala eta ez daukadala horretan jarduteko gogo berezirik, nahiz bi dokumental dauzkadan bidean, seguruen datorren urtean plazaratuko ditugunak. Perezia handia daukat. **Sormenari lotutako bestelako lanetan ere ibili zara azkenaldian. Zertan zehazki?**

Beti jardun dut lanean sormen kontuetan. Nahiko agortuta nago, atsedean premia handiarekin.



**Ondo pasa  
Sanandresetan!**

**AMETSA**  
**Gin Bar**

Jaietan gozatu  
\*Ametsa Gin Bar\*  
erara

**B**—*casa*—**ANAKA**  
**.BAR.**  
Calbeton, 26

Ondo pasa  
Sanandresak! **GOZATU  
EGIZUZ  
GUREKIN!!!**

**Su Beroa**

Bista Eder, 11  
Tel. 943 47 77 79  
suberoataberna@gmail.com

**Trinkete**  
EIBAR 1957

Erebal kalea 24 - 943 70 13 23

**Kili Kili**

GOSARIAK / PINTXOAK / EGUNEKO MENUAK  
AFARIAK / MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK...

943 20 24 01 **ibarkurutze, 12**

**Sokoa Pub**

**ZAI-ZOI**  
EZDOK LABADERUA  
KM.0 TABERNA  
BITTOR SARASKETA, I BEHEA

T. Etxebarria, 18 - 1.  
**CASINO ARTISTA EIBARRES**

Tfnoa. 943 20 71 90

# Udalak hiru lursail erosi ditu Kalamua eta Urkon basoa berreskuratzeko

Udalak Pagaegikorta baserria eta 23'5 hektareako lursailak erosi ditu; partzelak oso bisitatuak diren eremuetan daude, paisaia-balio handikoak dira, eta espezie ugarirentzako korridore ekologiko baten barruan kokatzen dira. Proiektuak bidezidor naturalak egokitzea erraztuko du, eta herritarrak inplikatzeko dituzten naturaren kontserbazioan eta klima-aldaketaren aurkako borrokan.

Eibarko Udalak hiru zoru-partzela erosi ditu monolaborantzari aurre eginez bertako basoa berreskuratzeko eta era horretan Eibarko ingurune naturalaren kontserbazio-egoera hobetzeko. Erosi diren ondasunak Pagaegikorta eta haren lursailak dira: hiru partzela 23,5 hektareako azalarekin. Lursailak bi gunetan daude banatuta: nagu-

sia, baserriaren beraren ondoan, Urko mendiaren magalean, eta bestea, Markina eta Elgoibarrekiko mugaren ondoan, Garagoiti-Kalamua inguruan. Ingurumen-onurez gain, proiektuak bidezidor naturalak irekitzea eta egokitzea erraztuko du, ingurune naturalerako sarbidea erraztuz; eta herritarrak naturaren kontserbazioan eta klima-aldaketaren aurkako borrokan inplikatzeko bultzatuko du, zuhaitzak landatzeko boluntariora-jardunaldien bidez.

## Ingurumen-politika

Eibar basoak berreskuratzen ari da, Udalaren, bere lurak lagatzen dituzten partikularren, eta Baso Biziak eta Lurgai Fundazioa bezalako tokiko taldeen inplikazioari esker. Ekimen horiek bat datoz Eibarko Udalaren ingurumen-politikarekin, zeina honako plan eta

ekimenetan jasota baitago: Eibarko 2025eko Plan Estrategikoa, Eibarko 2022-2030eko Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana (KEJEP), Eibarko udalerriko ingurumen-balio handieneko eremuen egoera ekologikoa kontserbatzeko eta hobetzeko Azterlana; horrez gain, Eibarko Udala Udalsarea 2030 Iraunkortasunaren aldeko udalerrien Euskal Sarean dago, edo Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko lanetan dabil.

Udalak 173.324,21 euro inbertitu ditu baserria eta lursailak erosteko, eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren 35.000 euroko dirulaguntza jaso du. Halaber, beste dirulaguntza bat eskatu dio Eusko Jaurlaritzari baso autoktonoa berreskuratzeko proiektu honetarako.



Gorri markatutako gunek dira Udalak erositako lursailak, guztira 23'5 hektareako azalera hartzen dutenak.



# Asfaltatze lanak hasita landa-bide batzuetan

Lehen fasean Arrateko errepidea Agirreazpikoa baserriarekin lotzen duen pistaren bi zati asfaltatuko dira eta bigarrenean Zozola eta Aritxulueta lotzen dituen pista. Udalak eta Andirao elkarteak mendi-bideak hobetzeko lortutako akordioaren parte dira hasitako lanak.

Eibarko Udalak hiru landa-bide asfaltatzen hasi da, lehen faseari hilabete honetan ekinez. Arrateko errepidetik Agirreazpikoa baserrira doan pistan eta Zozola eta Aritxulueta lotzen dituen bidean egingo dira lanak, Udalak eta Andirao elkarteak iaz sinatu zuten akordioaren barruan. Lehen fasea Arrate bidearen eta Agirreazpikoa baserriaren arteko pistaren bi zatitan



egingo da. Zehazki, asfaltatze-lanak Arrateko errepidearen eta Mandiologainekoa baserriaren arteko zatian eta Azpiri baserriaren eta Agirreazpikoa baserriaren arteko tartean egingo dira, bai eta pistaren hainbat adarretan ere. 3.650 m dira guztira hiru bat metroko zabalera-ekin. Asfaltados Olarra izango da asfaltatzeen arduraduna.

Aurreko lan horiek amaituta, georago Zozola eta Aritxulueta baserriak lotzen dituen pistan eta Ermuko adarraren zatian egingo dira lanak, bai eta Zozolarako bidean, zubiaren ondoren dagoen asfaltatuan ere. Lan horiek azaroan lizitatzea espero da.

## Bost urteetarako inbertsioa

Eibarko Udalak eta Eibarko baserritarrak ordezkatzen dituen Andirao elkarteak akordio bat lortu zuten 2022ko azaroan; horren bidez erabaki zen 1.750.000 euro bideratzea bost urteko epean herriko landa-ingurunea hobetzeko jardueretarako. Historian egindako inbertsiorik handiena da hau: 1.750.000 euro datozen bost urteetarako, alegia, 350.000 euroko inbertsioa urtean. Andirao, Eibarko baserritarrak biltzen dituen elkar-tea, pozik dago Udalak egindako esfortzuagatik. "Baserritarrek zuten eskaera handienari erantzun nahi diogu", dio Jon Iraola alkateak.



**Coro  
Zubicaray Aguirregabiria**

**9. URTEURRENA**  
2014/06/23

**Calixto  
Ulacia Beristain**

**2. URTEURRENA**  
2021/11/20

*"Beti egongo zarete  
gure bihotzetan"*

- ALABAK ITZIAI, AMAIA ETA NEREA ETA FAMILIA -



## “Eibar, Euskaraz heziko duen hiria” jardunaldia egin zen martitzenean

UEUk Eibarren duen egoitzak hartu zuen “Eibar, Euskaraz heziko duen hiria” jardunaldia. Izan ere, Eibarko Udalak Hiri Hezitzaileen nazioarteko erakundearen gutuna sinatzeko asmo sendoa dauka. Herriko hainbat arlotako ordezkariak bildu ziren ekitaldian. Parte-hartzaileek arretaz entzun zituzten hitzaldiak, eta amaieran talde-dinamiketan parte hartu ahal izan zuten.

Markeskua Jauregiak hartu zuen UEUk eta Eibarko Udalak antolatutako goiz osoko jardunaldia. Ane Sarasua UEUko Idazkari Nagusiak eta Jon Iraola Eibarko alkateak jardunaldiaren ongietorrian nabarmendu zuten bezala, “hiri hezitzailea aniztasuna, kultura, belaunaldiak eta formakuntzaren printzipioak barne hartzen dituen hiri bezala ulertu behar da.”

Euren esanetan, “Eibar berez hezitzailea dela esan dezakegu hiri-

**Eskolaz gaindi, badaude beste eragile batzuk berebiziko garrantzi eta funtzioak betetzen dituztenak ume eta gaztetxoek heziketan**

plangintzak, kulturak, ikastetxeek, kirol taldeek, zerbitzuek, elkarteek zein komunikabideek, beste askoren artean, herritarrak hezteko moduak sortzen dituztelako”.

Markeskua Jauregian bildutakoek arreta handiz entzun zituzten goizean zehar eskaini ziren hitzaldiak. Olaia Jimenez Arrieta HUHEZI - Mondragon Unibertsitateko irakasleak Hiri Hezitzailea izateak zer suposatzen zuen azaldu zuen, kontzeptuari marko teorikoa eskainiz.

Ondoren esperientzia desberdina ezagutzeko aukera izan zuten han bildutakoek. Belen Maiza Ordiziako zinegotzi ohia eta irakasleak Ordiziako esperientziaren berri eman zuen, eta Gasteizkoa azaldu zuen, berriz, Zuriñe Sanz Lopez de Heredia Gasteizko Udaleko hezkuntza teknikariak.

### Eragile guztien saretzea

Atsedenaldiaren ostean, Eibarreko hurbilpena egin zen eta Ane Albisu AKEBAIko dinamizatzaileak Eibarko proiektuan Hiri Hezitzailea nola kokatzen den azaldu zuen, Ainhoa Lasa Emuneko teknikariarekin batera. Nabarmendu nahi izan zuten, eskolaz gaindi, badaudela beste eragile batzuk berebiziko garrantzi eta funtzioak betetzen dituztenak ume eta gaztetxoek heziketan eta, kasu honetan, baita euskararen erabileran zein gaitasunean ere. Eragile horiek guztiak saretzea eta eskolarekin batera norabide berean arraun egitea ezinbestekoa dela nabarmendu zuten. Zentzu horretan, bateraguneak, lan-mahaiak eta eragileen arteko koordinazioa arrakastarako gakoak izan daitezke.

Jardunaldiari amaiera emateko dinamika bat egin zuten Eibarko egoera, nondik gatozen eta nora goazen elkarrekin aztertzeko.



## GOIKO-LUZ ARGI DENDA

LED ESKAINTZA

Aholku onenak  
eskainiko  
dizkizugu!

*Ospatu, bizi, gozatu  
SANANDRESAK!!!*

Otaola Hiribidea, 13  
www.goikoluziluminacion.com  
943-200883



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carnicería  
autorizada

Bidebarrieta, 20  
Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar

**ETXERA ERAMATEN DIZUGU**

943 20 16 69

@Oberenaharategia



Urkizu, 18  
943120194

## MUGIKA

Harategia - Urdaitegia  
Carnicería - Charcutería

Baserriko Haragia

## BENICOBA

etxeko tresnak

Ondo  
pasa  
SAN  
ANDRESAK!

Juan  
Gisasola  
12-14  
Tel.  
943 203902

## Hitzordu garrantzitsuak asteburuan Ipurua Klubeko gimnastentzat

Neguko egutegiko bi lehiaketa garrantzitsuenen aurrean daude Ipuruako gimnasten lehen lerroko ordezkariak. Talde bi horietako partaideek Iruñean izango dute erronka: senior taldeak Espainiako Kopako 3. fasean eta oinarri-jubenil mailakoek Espainiako txapelketan. Lau egun hartuko dituen hitzordua Nafarroa Arenan izango da, estatu osoko 345 klubetako 3.000 gimnastatik gora bilduko dituen ekitaldian. Jubenilen taldeak (Emile Zamakola, June Araujo, Maialen Apraiz, Elene Ramirez, Nahia San Martin eta Elene Lazpita) zapatuan hasiko du lehia eta seniorrenak (Nahia eta Haizeder Arguiz, Naroa Alonso, Indira del Pino eta Arrate Bascaran) domekan. Ipuruako prestatzaileek diotenez, bi taldeek ondo prestatu dute denboraldia urte amaierara begira: “Jubenilek urrea lortu zuten Izarlekun eta Donosti Torneoetan, bigarren izan ziren Foru Erkidegoko Trofeoan, Euskadiko Txapelketan eta Gipuzkoakoan, brontzea lortu zuten Anaitasuna torneoan eta,



Ipuruako oinarri-jubenil mailako taldeak Espainiako txapelketa jokatu du bihar Iruñean.

horrez gain, 8. postuan sailkatu ziren Euskalgym entzutetsuan”.

Seniorren taldearentzat Kopa beste urrats bat izango da abenduan Valladoliden jokatuiko den Espainiako Txapelketa absolutuari begira. Iruñean estatuko talde onenak izango baitira, euren txapelketa

autonomikoetako bi onenek bakarrik izaten baitutelako parte hartzeko txartela: “Gipuzkoako txapelketan urrea lortu zuten, zilarra Euskadikoan eta gure San Andres Torneoan, eta Euskalgymean ere bosgarren sailkatu ziren. Indartsu dauden seinale”.



## Eibar Igerixaneko Paula Calvok Mireia Belmonterekin entrenatzeko saria jaso du

Eibar Igerixaneko ordezkariak urrats bat bestearen ondotik ematen jarraitzen du, geratu barik. Horrela, aurreko asteburuan ere nagusi izan zen jokatuako probetan: zapatuan Getxoko Mireia Belmonte by Hyundai Promesen Openean eta domekan distantzia luzeko Euskal Herriko Txapelketan. Elgoibarko igerilariak, Getxon infantil mailako 200 estiloko proba irabazteaz gain, Mireia Belmonte igerilari handiarekin San Cugateko CAR-

en (Errendimendu Handiko Zentroa) asteburu batean entrenatzeko aukera izango du: “Teknifikazio arloko hainbat aspektu hobetzeko balioko dio”. Galdakaoko Urreta kiroldegian jokatuako distantzia luzeko txapelketan, bestalde, Eibar Igerixaneko Asier Gomezek ere hartu zuen parte. Paulak infantil mailako 2.000 librekoan nagusitu zen; Gomez, bestalde, bigarren izan zen absolutu mailako 3.000 librekoan.

## Sergio Rodriguez eibartarra txapeldun Euskal Herriko Hiru Txirloko txapelketan

Joan zen zapatuan Lasturko bolatokian jokaturako txapelketa horretako azken jardunaldian Asola Berriko ordezkariak ezusteko paregabea eman zuen eta, hiru tiraldietan aurrean ipini zizkioten txirlo guztiak etzanda, sailkapena irauli eta une horretaraino bost txirlora zuen liderrari aurrea hartu eta txapela jantzi zuen. Angel Ibarluzea elgoibartarrak hiru txirlo bota zituen guztira eta, Sergiok lortutako bederatzirekin, azken honek txirlo bakarrarengatik jantzi zuen txapela.

Emakumezkoetan Aitziber Olai-zola elgoibartarra nagusitu zen, eta amaierara arte borroka horretan izan den Asola Berriko Olaitz Rodriguez azkenean hirugarren geratu zen. Beteranoen mailan Bittor Astigarraga eibartarra izan genuen garraile beste behin, Bittor Ugarteburu taldekidea hirugarren sailkatu zen bitartean.

Bikoteka ere podiumean izan ziren Asola Berriko ordezkariak: Bit-



Sergiok badaki lehendik ere zer den tiraldiak irabaztea.

tor biwk bigarren postuan amaitu zuten, eta Juan Luis eta Sergio Rodriguez aitasemeak hirugarrenera iritsi ziren. Eta taldeka ere, azken jardunaldiari esker, Asola Berri A taldeak aurrea hartu zion San Miguel A taldeari eta, 105 txirlo eskuratuz, seira laga zuen Elgoibarkoa. Amaiera bikaina, beraz, Asola Berriko ordezkariena.

## 160 parte-hartzaile X. Cuevas lasterketan

Aurreko zapatuan jokaturako Asier Cuevas herri-lasterketaren 10. edizioak 160 atleta bildu zituen zazpi kilometro eta erdiko ibilbidea osatzeko, tartean "Zure irrifarra, Nire indarra" taldeko sei karrarekin. Oso giro ona izan zen, bai proba jokatu zen unean, baita ondoren ere, guztiak pintxoak dastatzen zuten bitartean. Sari-banaketak eta bertako produktuen zozketak ere parte-hartzaile eta bolondresen arteko arreata piztu zuten.

Gizonezkoetan Julen Teran izan zen lehenengoa helmugan, Pello Osorok jarraitu zion eta Mi-

kel Mugikak osatu zuen podiuma. Emakumezkoetan, Idoia Nogalesek irabazitako lasterketan, Ioana Osak eta Onintza Zeberioak osatu zuten podiuma. Bestelako sariak honela banatu ziren: juniorretan Ugaitz Gartzia eta Nora Martinez izan ziren azkarrenak, beteranoetan Javier Irazabal eta Luz Marina Valencia nagusitu ziren, eta aurreneko eibartarren sariak Iker Goikoetxea eta Miren Gallastegirentzat izan ziren. Eibartarrak izan ziren nagusi, baina etxekotik kanpo ere beste herri batzuetako 77 parte-hartzaile izan ziren zapatukoan.

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

Levante - EIBAR (bihar, 16:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Levante (bihar, 21:00)

#### Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR B - Osasuna C (etzi, 15:30)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - Portugalete (bihar, 15:30)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Aranbizkarra (etzi, 13:15)

#### Erregionaleko Ohorezko Maila

Zarautz - EIBAR URKO (bihar, 15:30)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

Zumaia - URKI (bihar, 13:00)

#### Erregionaleko 1. Maila

EIBARTARRAK - Elgoibar B (etzi, 18:00)

#### Jubeniletako Ohorezko Maila

EIBAR - Leioa (etzi, 12:30)

#### Jubeniletako Liga Nazionala

EIBAR B - Barakaldo (gaur, 19:30)

#### Kadeteetako Euskal Liga

EIBAR - Abetxuko (bihar, 18:00)

### FOBALI-ZALETUA

• BOJ - Bar Maren (bihar, 09:00)

• Adahi - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

• Malape - Xania (etzi, 09:00)

• Limpieza Rueda - Baserri (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR (atsedena)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Ereintza (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Zarautz

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Aritzabalde (etzi, 11:45)

#### Jubeniletako Euskadiko Liga

MEK EIBAR - Bidebieta Bera Bera

#### Kadeteetako Euskadiko Liga

MECALBE EIBAR - Bidebieta Bera Bera

### ERRUGBIA

#### Emakumezkoen Ohorezko Liga

El Salvador - EIBAR (etzi, 11:00)

#### Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

EIBAR - Kanpazar Arrasate

### SASKIBALOIA

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Ganboa (bihar, 14:30)

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Hernani - EIBAR B (bihar, 16:00)

### WATERPOLOA

#### Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

Alcorcon - URBAT (etzi, 13:00)

#### Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

URBAT B - Sestao

## Arratsalde zoragarria Astelenako Eskolarteko txapelketan

Txapelketa horretako lehenengo faseko bigarren jardunaldia hartu zuen aurreko zapatuan pilotaren Katedralak, Arrasate, Oñati, Bergara, Aretxabaleta eta Eibarko benjamin mailako pilotari eta euren gurasoekin giro animoso eta gozagarriaz frontoia alaituz. Eskolarteko txapelketa hori azken bi urteotan sistema berezi bati jarraituz jokatzeko da: “Norgehiagoka bakoitzean hiruna partiduko jokatzeko dira,

8 tantura: banakakoa eta bi binaka. Hirutik bi joko irabazten duenak bi puntu bereganatzen ditu eta galtzaileak bat”. Gainera, frontisean eta errebotean jokatzeko dutenez aldi berean, dinamika polita sortzeaz gain, jardunaldia gehiegi ez luzatzea ere badakar horrek. Xedea aldatzen joaten denez, “oraingoan Eibarko bi tokatu zaigu antolatzea”, diote Deporreko pilota eskolakoek. Debarroko pilota eskolen arteko

lehia horretan guztira 31 taldek jokatzeko dute benjaminetan eta beste 24k alebinetan. Gure herriko pilota eskolako bi talde izan ziren Eibarren A multzoan eta beste batek Bergaran jokatu zuen C multzoan. Eibarrek aurten aurkezten dituen alebin mailako beste bi talde Sorluzen izan ziren. Dena dela, benjaminetan zein alebinetan emaitza bikainak eskuratu zituzten gure ordezkariak.



## Valenciaga Memoriala atzeratu egingo da 2024an, maiatzaren 5ean jokatzeko

Eibarko Txirringularitza Elkarteak antolatzen duen afizionatuen mailako estatuko proba garrantzitsuenak hilabete bat atzeratuko du datorren urteko edizioa. Azken ediziotan Itzulia eta Valenciaga bata bestearen atzetik jokatu izan dira eta, horrek elkartekoei lanez lepo izatea ekarri dienez (askok Itzuliaren antolakuntzan ere parte hartzen baitute), bi proben arteko tartea handitzea erabaki dute Angel Lopez gidatzen duen Club Ciclistakoek. Horrela, Espainiako Koparako baliagarria izango den lasterketa maiatzaren 5ean jokatu da (“libre geratzen zen ia data bakarra”), apirilaren 1etik 6ra jokatu den Itzulitik hilabetera. Aurten lasterketak jokatzeko izan diren

arazoek, diotenez, ez dute eraginik izan data aldaketa horretan. Eibarko Txirringularitza Elkartekoek antolatzen dute baita emakumezkoen Eibar Hiria Saria ere. Proba hori handik hiru astera jokatu da, maiatzaren 26an, eta oraingoan mailaz igoko da: 1.1 kategoriatik Pro Seriesera pasatuko da, “gustatuko litzaigukeen World Tour izateko bidean”. Lopez presidentek dioenez, “Laboral Kutxa dugu babesle eta ondo egongo litzateke, kontuan izanda 2026an mendeurrena beteko dugula”. Datorren urteko emakumezkoen lasterketa horrek helmuga aldatu dezake eta Arratera eraman, “100 urte beteko dituen Klub Deportiboaren Euskal Jaiak tartean izango direlako”.

## Bihurri aita-emeak San Andresetako aizkora torneoan izango dira

Datorren asteko egunean, San Andres egunean, aizkolarien txapelketaren edizio berri bat jokatu da, eguerdiko 12:00etan hasita. Oraingoak hainbat aldaketa ekarriko ditu: “Lehen gazteak zirenekin osatutako hiru bikotek senior mailako txapelketa nagusia jokatu dute, zortzina korte egiteko txanda librean; eta beterranoen arteko beste lehia bat izango da, 100 urtetik goragoko bi bikote protagonista direla”. Ernesto eta Hodei Ezpeleta aita-emeak bertan izango dira, betiko lez. Arrate Kultur Elkartearen aurrean jokatu da; eurria bada, Errebal Plazara eramango dute ikuskizuna.



## Ondo pasa Sanandresetan!



**ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA**  
**FOXTER**-ek bere gastronomia bikaina etxera eramaten dizu, igandetik ostegunera (20:00-22:30)  
RAZIOAK • SANDWICHAK • BOKATAK  
HANBURGESAK • MEXIKARRAK  
Plaza Barria, 6. / 943 121 255 *Anitatu eta deitu!!!*

Untzaga, 11  
**Laurel & Hardy Pub**

**Gure Leku**  
Ezagutu bikaintasuna gurekin!  
Gozatu plater konbinatuak, itxaski eta gehiagorekin  
Esperientzia ahaztezina gire atseginean  
Isasi, 3  
943 969 100

**GORA GURIDI**  
**SAN ANDRES!**

**URKIZU, 22** 943128086  
**Aguiñaspi**  
MENU BEREZIAK ENKARGUZ  
Plater konbinatuak, Razioak, Bokatak, Hanburgesak  
*karagorrietan 07.00€etatik atseburuetan 08.00€etatik*

Ego gain, z/g  
**Ongi etorriak zuen etxera!!**  
943 20 67 53

**BULEBÚ**  
Jatetxea  
Telf. 843 69 90 11 San Juan kalea, 19

**ek!**  
Zure publizitatea herriko aldizkarian  
**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus



## Eibarko hitanoa bost astetan ikasteko doako aplikazioa

Eibarko hitanoa modu ludikoan ikasteko *Appa hi!* aplikazioan sortu duten atal berria aurkeztu zuten barixakuan Eibarren Akebaiko Ane Albisuk, Badihardugu elkarteko Asier Sarasuak eta Jon Iraola alkateak. Diotenez, "garai batean hika kalean eta etxean hitz egiten ikasten zen, baina gaur egun transmisio hori etenda dago Eibarren, eta etxean eta lagun artean hizkera mota hori berez jaso ez dutenei erreminta bat eskaini nahi diegu". Aplikazioaren edukia Badihardugu elkarteak sortu du, eta Eibarko hitanoa ikasteko atala gehitu diote orain arte egindakoari. Mugikorrean doako aplikazioa dagoeneko eskuragarri dago, Google Play edo App Store bidez jaitسي eta instalatzeko.



## Aitzuri Abesbatzaren kontzertua Karmelitetan

Debako Aitzuri Abesbatzak kontzertua emango du Karmengo Amaren elizan, abenduaren 16an, 20:15ean. Xabier Carrillok zuzentzen duen abesbatzak programa zabala prestatu du, Juan Sebastian Bach, Federico Chueca, Gabriel Fauré, Pau Casals, John Jenkis, Astor Piazzolla, Pablo Sorozabal eta beste hainbaten konposizioekin. Abesatza Amaia Zipitria pianojolearen laguntzarekin arituko da eta sarrera doan izango da.



## Ahots-grabaketa maratoia antolatu du Akebaik abenduaren 1 eta 2rako

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan, Eibarren Akebaik ahots-grabaketa maratoia antolatu abenduaren lehen bi egunetarako, eta eibartar guztiak gonbidatu nahi dituzte 12.500 esaldi grabatzeko erronkan parte hartzera. Azaldu dutenez, "makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu, eta horretarako, ahots asko eta askotari-koak behar ditugu, baita eibartarrenak ere. Hori lortzeko sortu zen, hain zuzen, Gaitu izeneko proiektua. Abenduaren 1ean (barixakua) 18:00etatik 21:00etara grabatuko dituzte esaldiak, Errebal Plazan. Eta abenduaren 2an (zapatua) Untzagako harmailetan egongo dira, 11:00etatik 14:00etara. Egunean bertan azalduko zaio jendeari zer egin behar duen, baina oso erreza izango dela aurreratu dute.



## Amaia Tellaetxeren pinturak Portaleko tabernan ikusgai

Hilabete osoan zehar ikusi ahal izango dira Amaia Tellaetxe eibartarraren margolanak Portalea tabernan, Bista Eder kaleko 10. zenbakian. Artistaren margolanen erakusketa tabernaren ordutegian bisitatu daiteke.





## Domekan zabalduko dute Exfibar seilu erakusketa

Domekan, 12:00etan inauguratuko da Exfibar LIV. Seilu Erakusketa Portalean. Arrate Filatelia Elkarteak urtero antolatzen duen seilu erakusketan beti ekartzen dituzte gogora Eibarko elkarten lana zein herriarekin loturaren bat duten beste kontu batzuk ere. Edizio honetarako aukeratu dituzten omendua Ipuru Gimnasia Erritmikoko taldea eta Ibarkurutzeko iturria dira, eta bie buruzko informazio zabalabildu dute erakusketaren harira kaleratzen duten katalogo edo liburuxkan. Gainera, Ipuru klubari eskeinitako seilua eta posta-marka ere atera dituzte. Beti bezala, bildumagile eta zaletuek zigilu-marka eskuratu ahaliko dute inaugurazio egunean, 10:30etik 13:30era. Erakusketa abenduaren 3ra arte egongo da zabalik, ordutegi berezian: astelehenetik barixakura, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatu eta domeketa, 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara (azaroren 30ean itxita).

## Klake dantzara hurbiltzeko saioa



Kezka dantza taldearekin elkarlanean, “Tipi-tapa! Klakearen teknikara hurbiltzea” ikastaroa antolatu dute, Dantzan Ikasi programaren baitan.

Abenduaren Iean (barixakua) izango da, 19:00etatik 21:00etara Portalean eta matrikulak 15 euro balio du. Klakea edo tap-dantza ikastea izango da erronka: “Zapateatu moduan ezagutzen den dantza moldera hurbiltzeko saiakera egingo dugu Larraitx Ugartemendia klake dantzariarekin”. Informazio guztia dantzan.eus web orrian dago.



## Santa Zeziliaren omenezko serenata eta kontzertua

Eguaztenean izan zen Santa Zezilia musikoen babeslearen eguna eta, hori ospatzeko, hitzordu bikoitza prestatu du Eibarko Musika Bandak astebururako. Zapatutik domekarako gauerdian, Untzagan hasiko da Santa Zezilia serenata. Gainera, jendea parte hartzera animatzeko, kalejiran abestuko dituzten abestiekin kantu-paperak atera ditu Bandak, doan banatzeko (Portalean, Coliseo antzokian, eta Ongi Etorri, Trinetek eta Etxegiña tabernetan eskuratu daitezke). Eta, domekan, kontzertua emango dute, 12:30ean, Coliseon. Aurten, pelikula ezagunen soinu-bandak joko dituzte: The Godfather, Quo Vadis, Midnight Cowboy, Silverado eta Charles Chaplin. Andoni Vazquez zuzendariaren berbetan, “erronka handia da bandarentzat. Kalitate handiko moldaketa eta errepertorioa eskainiko ditugu”. Sarrerak Kutxabank bitartez zein antzokiko leihatilan eskuratu daitezke, doan.



## Mahai-txotxongiloen ikuskizuna

Titirirjai Nazioarteko Txotxongilo jaialdiaren eskutik, bihar arratsaldean “Ilargia nahi dut” izenburuko ikuskizuna aurkeztuko du Portugalgo Particulas Elementales konpainiak, 17:00etan, Coliseo antzokian. Mahai-txotxongiloekin egingo duten ikuskizuna familia osoarentzat egokia da, eta sarrerak 5 euro balio du.



**AURKITU 10 DESBERDINTASUNAK**

**L  
A  
B  
I  
R  
I  
N  
T  
O  
A**



**LOTUIZU JABE BAKOITZA BERE TXAKURRAREKIN**

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

						1
		1		5	2	6
7	2	5	8			
9		8		4		7
						3
3	4			7	2	5
				4	3	5
1	3		6		4	
5						

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A
C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B
D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C
E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D
F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E
G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F
H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G
I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R
T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W
Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	8	6		2	7			
5		7			4		9	
					6			1
				6			3	2
		8				9		
2	4			9				
1			6					
	6		7			3		9
			5	8		1	6	

Q	P	O	N	M	L	K	J	I	H	G	F	E	D	C	B	A
P	O	N	M	L	K	J	I	H	G	F	E	D	C	B	A	
O	N	M	L	K	J	I	H	G	F	E	D	C	B	A		
N	M	L	K	J	I	H	G	F	E	D	C	B	A			
M	L	K	J	I	H	G	F	E	D	C	B	A				
L	K	J	I	H	G	F	E	D	C	B	A					
K	J	I	H	G	F	E	D	C	B	A						
J	I	H	G	F	E	D	C	B	A							
I	H	G	F	E	D	C	B	A								
H	G	F	E	D	C	B	A									
G	F	E	D	C	B	A										
F	E	D	C	B	A											
E	D	C	B	A												
D	C	B	A													
C	B	A														
B	A															
A																

soluzioa

# Azaroak 24 - 30

## BARIXAKUA 24

### LIBURU AURKEZPENA

**19:00** "Palabras de vida", Koro Benitoren liburua. Eibar Coworking (Eibarko Txikito, 8 B).

### BERTSOAK

**20:00** San Andres Bertso Jaialdia. Oihana Bartra, Unai Iturriaga, Maddalen Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Jon Maia eta Unai Agirre bertsolariak. Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika. 8 euro. Coliseo.

## ZAPATUA 25

### ZUMBATOIA

**10:00/12:00** Zumba Maratoki Solidarioaren VI. edizioa. 10 euro. Errebal Plazia.

### MATAZAK EHUNTZEN

**11:00/13:00** Indarkeria Matxisten Kontrako Eguna dela-eta, Altxoa elkarteok matazak ehunduko dituzte. Untzaga.

### TXISTORRA EGUNA

**12:00/21:00** Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik, txistorra-pintxoak, zozketak, musika... Untzaga (karpa).

### ELKARRETARATZEA

**13:00** "Ez mendekoak, ez ikusezinak. No a la violencia simbólica machista". Untzaga.

### TITIRIJAI

**17:00** "Ilargia nahi dut" (Partículas Elementales, Portugal) txotxongilo ikuskizuna, familia osoarentzat. 5 euro. Coliseo.

## ZAPATUKO IPUINA

**18:00** "Jolastea debekatuta", Maite Frankoren eskutik. Portalea (areto nagusia).

### MANIFESTAZIO ZARATATSUA

**18:30** "Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak", Matraka eta Nalua talde feministek deituta. Untzaga.

### SANANDRESAK

**19:00/22:00** DJ Danel Santiago. Errebal Plazia.

### MUSIKA

**00:00** Eibarko Musika Bandaren Santa Zezilia Serenata. Untzaga.

## DOMEKA 26

### INAUGURAZIOA

**10:30-13:30** Exfibar LIV. Seilu Erakusketaren inaugurazioa (12:00) eta zigilu-marka ipintzea. Portalea.

### SANANDRESAK

**11:00/13:00** XXIX. Bakailao txapelketa. San Andres saria. Untzaga.

### MUSIKA

**12:30** Eibarko Musika Bandaren Santa Zezilia kontzertua. Coliseo.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45** Haurrekin patinatzerako joateko aukera. Ipurua kiroldegia.

## ASTELEHENA 27

### BILERA

**10:30 edo 18:00** Immigrazioaren eta Kultura Aniztasunaren Arloaren "2023-2027 Bizikidetzeta eta

Dibertsitatearen IV. Plana". Iritziak eta ekarpenak jasotzeko saioa. Portalea (3. pisuko ikastaro gela).

## EGUAZTENA 29

### SANANDRESAK

**19:00/22:00** Elektro-txaranga, herriko kaleetan. **22:30/01:00** Erromeria, Laket taldearekin. Untzaga (karpa).

## EGUENA 30

### GREBA FEMINISTA OROKORRA

**00:00** Greba egunaren hasiera.

**05:45** Piketeak industriaguneetan.

**10:00** Espazio egonkorraren irekiera.

Zunba eta gosaria.

**11:00** Kafe-tertulia eta elkartasun-piketeak.

**12:30** Zaintzaren testigua-manifestazioa: musika eta dantzaz Eibar zeharkatuko dute, Kantoitik hasita.

**14:30** Herri-bazkari autogestionatua.

**16:00** Bazkaloste girotua.

### SANANDRESAK

**09:30** XLIV. San Andres Nekazal Azokaren epai-mahaiaren lanen hasiera. Untzaga eta Txaltxa Zelai. Abereen erakusketa (Calbeton).

**10:00** Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

**12:00** San Andres Aizkolari Txapelketa, bikoteka. T. Etxebarria.

**13:00** Udalaren lehiaketetako sari-banaketa. Untzaga.

## ERAKUSKETAK

### Azaroaren 26ra arte:

- **JESUS BELAUSTEGI**ren zeramika-lanak. (Topaleku).

### Azaroaren 28ra arte:

- **Modest Mussorgsky**-ren "Cuadros de una exposición", **ESTEBAN ORO** Zen koadroak. (Untzaga gizarte etxea).

### Azaroaren 30era arte:

- **AMAI TELLAETX** eren pintura erakusketa. (Portalea taberna).

### Azaroaren 26tik abenduaren 3ra:

- **EXFIBAR LIV. Seilu Erakusketa**. (Portalea).

### Azaroaren 26tik abenduaren 11ra:

- **"GAZTE SOZIALISTEN 120 URTE"**. (Eibarko Herriaren Etxea).

### Otsailaren 18ra arte:

- **"TXIRRINDULARIA"**, Jose Zugasti eibartarrarena. (Armagintzaren Museoa).

### Otsailaren 29ra arte:

- **"EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak"**, **JOSUNE ARANGUREN ZATIKA** eibartarraren erakusketa. (Andretxea).

## Eskualdeko Agenda

### ERMUA

**25ean (ZAPATUA) KONTZERTUA**  
**20:00 / Lobiano**  
Markos Untzeta.

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **25ean:** 22:30
- **26an:** 20:00

**“Contadora de películas”**  
DRAMA



2023/Espainia/116'  
Zuzendaria: Lone Scherfig  
Aktoreak: Bérénice Bejo,  
Antonio de la Torre, Daniel Brühl  
**60.eko hamarkada**

## 2 ARETOA

- **25ean:** 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00, 20:00

**“Teresa”**  
DRAMA



2023/Espainia/100'  
Zuzendaria: Paula Ortiz  
Aktoreak: Blanca Portillo, Asier  
Etxeandia, Greta Fernandez  
**Biografikoa/Erlijioa**

## 1 ARETOA

- **25ean:** 16:00, 19:15, 22:30
- **26an:** 16:30, 20:00 (Antzokia)

**“Napoleón”**  
DRAMA



2023/AEB/147'  
Zuzendaria: Ridley Scott  
Aktoreak: Joaquin Phoenix,  
Vanessa Kirby, Tahar Rahim  
**Biografikoa/XVIII. mendea**

## ANTZOKIA

- **25ean:** 17:00 (2 Aretoa)
- **26an:** 17:00

**“Doraemon Movie”**  
ANIMAZIOA



2020/Japonia/110'  
Zuzendaria: Kzuaki Imai  
**Fantastikoa/Manga/  
Abenturak**



**BOLINTXO**  
**OKINDEGIA**  
**GOZOTEGIA**  
Eguneroko ogia  
☎ 943 20 40 66 (Errebal)

**BASERRIKO PRODUKTUAK**  
**IBARKURUTZE**  
**frutadenda**  
WHATSAPP BIDEZ ESKAERAK  
680 38 20 91 / 664 71 86 99

**ek!**  
Zure publizitatea  
herriko aldizkarian  
**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus

**Arregi - Dominguez**  
Bidebarrieta, 4 Ego-Gain, 9  
943 201138 943 203209  
Mariskoak / Arrain freskoa/izotza  
Enkarguak / Ondarruko arraina

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **BEÑAT**. Ondo ospatu zure eguna!!! Besarkada handi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NAIA**, bixar 10 urte beteko dozuzelako. Musu handi bat aitxitxa, amama eta Zumaren partez.



Zorionak, **LORE**, gaur 7 urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, bereziki, zure anaixa Oier-en partez.



Zorionak, **ANE** Artetxe Barrutia, hillaren 30ian 7 urte beteko dozuz-eta. Etxeko guztion eta, batez be, Aizea eta Maialenen partez.



Zorionak, **UNAI** Alvarez. Gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, **AMETS!!** Atzo 6 urte bete zenduaz-en-eta. Laztan handi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JOSEAN**, atzo zure eguna izan zan-eta. Zeintzuk dozuz buruan hurrengo jaixetarako? Etxekuen eta lagunren partez.

**ATEVN**  
  
**HARATEGIA URDAITEGIA**

**EIBAR**  
 Romualdo Caldos, 12  
 943 206194

**MARKINA-XEMEN**  
 Artibal, 3 94 6187669

**ONDARROA**  
 Iparragirre, 10 94 6833523

**PELLUQUERIA BLEND**  
  
 943 206331  
 Ubitxa, 1

**PUBLI RESA**  
 objeto publikitario

merchandising  
 serigrafia  
 lanerako erropia

www.publiresa.com  
 publiresa@publiresa.com  
 943 701 457 / 615 799 419  
 Amagin, 3-5 behea

**PINTURAS ARRATE, SL**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

**MATSARIA, 34 behea - A**  
 info@pinturasarrate.com  
 Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia eta zabala alokagai Ipuruia inguruan. 652775746.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da enpresa batean egun osoko lana egiteko. 697586781.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. 627086917.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak arratsalde zaintzeko (Geriatría tituluarekin). 652532589. Elvis.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. Orduka. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 631129408.

- Neska eskaintzen da pegorak edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Erizain teknikari laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu edo paseatzera atera eta garbiketarako egiteko (etxeak, pegorak, bulegoak...). Orduka. 612460920.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. 631159373.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Ingelesa ikasten diharduena behar dugu 12 urteko ume bati klase partikularrak emateko etxean. 607926886.

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Egoera onean. Eskaren kontrako koltxoia, barroteak eta mahai tolesgarriarekin. 650989660. Arrate.



**FISIOTERAPIA**  
**ZENTRUA**

**Ane Mendiá**  
970 kol. zkia.



**INDIBA TERAPIAK**  
**ARTIKULAZIO TENPORO-**  
**MANDIBULARREKO ARAZOAK**  
**TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK**  
**K-STRETCH KLASEAK BAKARKA**  
**HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA**  
**OROKORREAN**  
**ERGONOMIA HOBETZEKO KLASE**  
**PERTSONALIZATUAK**



**Arragueta, 20**  
**943 530642**

[ane\\_mendia@hotmail.com](mailto:ane_mendia@hotmail.com)



**EIBAR**

HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

San Andres jaietan

# IRRIBARRERIK POLITENA

erakutsi ezazu

- ◆ Odontologia orokorra
- ◆ Haur odontologia
- ◆ Hortz zuritzea eta estetika
- ◆ Ortodontzia
- ◆ Protesi finkoa eta kentzekoa
- ◆ Kirurgia eta inplanteak



📍 San Agustin Kalea, 4 behea (Eibar)  
🌐 [www.eibarclinicadental.com](http://www.eibarclinicadental.com)

📞 943 537 076 · 688 884 808  
✉ [info@eibarclinicadental.com](mailto:info@eibarclinicadental.com)